

Begi bistakoa



KOLDO ALDALUR
HIRIGOEN
KAZETARIA

"Kontatu didate New Yorken, Broadway eta 26 karrikaren kantoian..."

Garai batean gaez GAC bizikleta zaharreen nindoanean bezala, arazo handiak ditut urrutira ikusteko. Irudimenaren gurpilak dinamoari ematen dion indarra nahikoa izan ez, itxuraz. Urrutira ikusi ezin, eta gertukoari igartzen ez.

Roman Krznaric intelektual austrialiarrak *The good ancestor* (Arbaso ona) liburuan dio kontsumismoak eta sare sozialek gaur eguna soilik ikustera behar-tzen gaituztela.

Ondorioz, "katedral pentsaera" lantzea proposatzen du: ehun urtean mundua erabat aldatuko denez, gure gaurko begirada urrutira luzatzea, gure garaian gizarteak hartutako erabakiek marraztuko dutelako atzetik datozen belaunaldien errealitatea.

"...negu gorrian gizon batek gauero jendeari otoi aterpea eskatzen diela bilutsik daudenentzat..."

Orain hurrena, herriko gazte batzuk bizi duten testuinguruaren analisiaren ondorioz sortutako proposamen politikoei buruz aritu zaizkigu: egiturazko langabezia, bizi ereduaren pobretzea,

Eta nik egungo langileen arazoez edo etorkizunari begira ari ote diren galdetu diot neure buruari

emantzipatzeko ezintasuna, interbentzio kulturala, hipersexualizazioa, autoritarismoa, hezkuntza sistemaren arrakalak... Laburtuz, eredu kapitalista utzi eta langileen beharrak aseko dituen eredu berria sortzeaz.

Eta nik egungo langileen arazoez edo etorkizunari begira ari ote diren galdetu diot neure buruari.

"Mundua ez da era horretan aldatzen, pertsonen hartu-emanak ez dira hobekitzen, zamaroa ez da hola laburtzen, baina..."

Hurrengo egunean, Elkar-ekin taldeak, herritar xume eta animoso batzuek osaturiko lantaldeak, azken hilabeteotan

egin duen lanaren berri eman zigun urteko batzar irekian. Kanpotik pobrezari eta sarri heriotzari ihesi datozenei laguntzeko sortutako lantaldea da. Bigarren eskuko produktuz osatutako denda bat badute, eta ia musutruk duintasunari eusteko behar den dena topa dezake bertan gurera iritsi berriak: konpainia, arropak, informazioa, besarkadak... eta, ahal den neurrian, lana.

"...baina batzuek gau batez ohea dute, aterbean haize hotzik ez eta, beraiei zihoakien elurra karrikan ari da..."

Krznaricek dio klimaren krisiari eta ondoriozko krisi ekonomiko, sozial, etiko eta gainontzeko krisi guztiei ezin diegula gertuko betaurrekoekin begiratu. Herriko gazteek diote urrutira begiratzeko gertu dugunari erreparatu behar diogula, Elkar-ekin lantaldekoek gaur gaezan elurra egiten badu nola moldatuko diren jakin nahi dute.

Orain, aspaldiko hartan baino bizikleta hobeia dut, baina arazoa ez da aldatu: urrutira begiratzen badut, ez ditut muturraren aurrean ditudan bideko zuloak ikusten. Eta gertukoari erreparatzen badiot, urrutixeago zer dagoen ikusi ezin.

Bertolt Brecht galdetu beharko diot. ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A

URTARRILAK 27

MARTXOAK 25

10 TALDE

BAT-BATEKO 12 TALDE

300 PARTAIDETIK GORA

12 KANPORAKETA,

3 FINALAURREKO

ETA FINALA

www.bertsozale.eus/araba

Babesle nagusiak

Arabako Foru Aldundia
Diputazioaren Foru Batzaria

Vital
LONDORRI FINEANZA

LABORAL

udapa
= FACILE

artepan

ARGIA